



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Bilbaína Jazz Club eta Arriaga Antzokiak «BJC Arriagan» zikloari ekingo diote berriro, urtea amaitu baino lehen bi kontzertu emanez

- Azaroaren 29an, Kurt Rosenwinkel eta Jean-Paul Brodbeck-ek *The Chopin Project* zoragarria eskainiko dute; lan honek poloniar musikagile apartaren melodiak jazz, blues edo swing pieza sutsu bihurtzen ditu.
- Abenduaren 27an, Trío Manzanares bikaina jasoko du Arriagak; Javier Colina kontrabaxuak, Ariel Bringuez saxo-jotzaileak eta Borja Barrueta bateria-jotzaileak osatzen dute hirukotea.

Bilbo, 2022ko irailak 2.- «BJC Arriagan» zikloa beste denboraldi batez itzuliko da, Bilbaína Jazz Club eta Arriaga Antzokiaren babesarekin. Aurrerago, 2023ko lehen seihilekoko emanaldien berri emango dugu, baina orain aurreratu dezakegu 2022. urtea amaitu aurretik zikloko bi kontzertu egingo direla.

Lehen kontzertua azaroaren 29an izango da. Bilboko publikoak **Kurt Rosenwinkel** jazz-gitarrista ospetsuaren eta **Jean-Paul Brodbeck** suitzar pianista goraiatuaren proposamen bereziaz gozatu ahal izango du. *The Chopin Project* lana sortzeko batu dituzte indarrak; bertan, Chopinen musika joko dute, jazzeko laukoterako egokituta. Horretarako, Jorge Rossy-ren laguntza izango dute bateriarako, eta Lukas Traxel-ena baxurako. Erritmo erromantikoak swingaren harrokeria bihurtzen dira; melodia folkloriko angelutsuak, blues; eta Chopinen arkudun lerro melodiko luzeen dotoretasun findua post-boparen energia transzendentek itxuraldatzen du.

«BJC Arriagan» zikloko bigarren proposamena Gabon garaian iritsiko da, abenduaren 27an, hain zuzen. **Trío Manzanares** izango du protagonista. Hiru instrumentista handi dira, eta musikak eta Madrilgo mendilerroan elkarrengandik oso gertu bizitzearen kointzidentziak batu zituen. Kideak Javier Colina kontrabaxua, Ariel Bringuez kubatar saxo-jotzailea eta Borja Barrueta bilbotar bateria-jotzailea dira. 2021eko apirilean jada Ariel Bringuezen bisita izan genuen Arriagan. Hirukotea, Madrilgo areto eta klubetan aritua, estilo ezberdinak jorratzera ohituta dago. Errepertorioak ez du etiketarik: jazzaren jatorrizko piezak, Kubako klasikoak, gnawa musika... eta beste hainbat biltzen ditu.

ARRIAGA ANTZOKIRAKO SARRERAK

- 21 euro
- Irailaren 5etik (astelehena) aurrera salgai www.teatroarriaga.eus web orrian edo antzokiko leihatiletan, alde zuzeneko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus